

## Korrika txikia aperitibo

Igandean goizeko 7:40ean iritsiko da lekukoa Zubietatik barrena

Larunbatean egun osoko festa antolatu du Munterri euskaltegiak

Sasoeta Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako ikasleek Korrika txikia egin zuten atzo arratsaldean erdiguneko kaleetan. Zumaburu elizaren ingurutik abiatuta, poz pozik eraman zuten lekukoa herriko gaztetxoek, herri erdia

zeharkatu eta Andatza plaza festa batekin amaitzeko.

Korrika igande goizean 7:40ean iritsiko da Zubietatik aldetik eta larunbatean egun osoko festa egingo da Lasarte-Orian. •



## Berandu hasitako idazleak

Helduen eskolak literatur lehiaketako sariak banatu zituen

Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko HHI zentroan XI. literatur lehiaketako sari banaketa irakurketa eta idazketa bultzatzeko ekitaldi bihurtu zen urtero bezala.

Ikasleek sariketarako idatzitako testuak irakurri zituzten, eta bukaera Juana Lara 78 urteko ikaslearen gogoia eta ahalegina eskertu zuten. Berak jaso zuen amaieran opari berezia.

Aurretik parte hartzaile guztiek, aurten ere ehun baino gehiago izan dira, karpeta eta axota jaso zuten opari. Guztira HHI eskolako 11 talde pasa ziren oholtzatik eta talde bakoitzetik ikasle batek bere narrazioa irakurri zuen.

Aurreko bi urteetan ekitaldia Kultur Etxean egin eta gero, aurten berriro eskolan bertan egin dute. Gainera, opari banaketaren ondoren bizkotxo lehiaketa egin zuten eta giro bikaina izan zen ondorengo meriendan ere.



Amaieran Juana Lara ikaslearen gogoia omendu zuen Helduen Zentroak.

Juana Lara oso pozik zen jaso zuen omenaldiarekin. Duela sei urte hasi zen eskolalan: "etxean familiaren karga arindu zitzaidanean hasi nintzen, ahal dudana guztietan etortzen naiz. Eta ez dut askotan kale egiten!, ezta?" zioen".

Irakurtzen, batuketak, kenketak eta biderketak egiten ikasi du Juana Larak eta aitortu zuen jarraitzeko asmoa duela, "pixka bat ikasi dut eta gehiago ikasteko asmoa daukat, jadanik ez dut behar handirik izango, baina" esan zigun. •

### KIROLA | 3

Igerilari gaztetxoak bikain Gipuzkoako Txapelketan

## Atsobakarreko langileak lan baldintza duinen eske

### KULTURA | 2

Lasarte-Oriako 2011ko literatur lehiaketa martxan



Aste honetan, asteazkenean, udaletxearen parean kontzentratu ziren langileak.

### KULTURA | 10-11

Mikel Bermejo: bakarrizketalari berria jaio da

Asteazkenean, hilaren 13an udaletxe aurrean bildu ziren eguerdi aldera Atsobakarreko langileak lan baldintza duinak aldarrikatzeko.

Otsailaren 23an elkartu ziren enpresa komitea eta Lasarte-Oriako Atsobakar erresidentzia kudeatzen duen CLECE enpresako kideak akordio bat bilatzeko asmoz. Bileran horretan, CLECE langileek luzatutako proposamena aztertzekotan gelditu zen.

### Itxaronaldi luzea

Erantzunaren zain ia bi hilabete igaro ostean, "oraindik soldata murrizketekin etorri dira zaigu, ez digute Kontsumoko Prezioen Indizea ere igo" azaldu digute komitekoek.

Gainera, langileek salatu dutenez, "enpresari, aldiz, bai igo die urteko kopuruan KPIa Udalak". Beraz, langileek ez dute eskatutakorik lortu, igoera eta plus guztiak izoztuko dizkietela aipatu dute, gaueko lanaren plusa izan ezik.

Enpresarekin akordio batera iristeko ezintasunaren aurrean, gaur ostirala 12:00etan Atsobakarreko autobus geltokian kontzentratuko dira, hilaren 19an Grosse CLECEren egoitza aurrean eta 20an, udaletxe aurrean. •




**Fisioterapia Zentroa**  
**Ibaiondo**

Fisioterapia      Masajeak  
Errehabilitazioa      Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behe. ezk - LASARTE-ORIA  
Tel. | Faxa: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

**MAITE**

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorpuzteko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu





**Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria**

**Neure kabuz**



**Korrika**

Korrika badator! *Arin pausoa, tipi-tapa bihotza ta zangoak.* Azkenik, korrika gurera helduko da igande goizaldean, Donostian azken kilometroak ahitu baino lehen. Euskal Herri osoa zeharkatu ostean dator. Trebiñutik oraingoan. *Karrantzatik Iruñeara, ere joan izan da. Edo Gas-Gasteizetik, Bai-Baionarat. Pauso bakoitzeko, hitz bat asfaltoan txertatuaz.* Eta hamazazpigarrenez ere, *eskuz-esku, ta denen pausoz, egingo du bide osoa.*

Niko Etxart-ek zioen moduan, *Aire, Aire adiskidiak! Herri honen ohia* tipi-ttapa, tipi-ttapa baitator Arabako lautadatik guganaino. *Irriz irri, korrika iturri.* Eta guztiok dugu gure-gurea dugin euskararen alde emateko zerbait. *Belau-naldiz-belaualdi.* Zapatila zaharrak arairu zokotik aterata, birrik airez eta begiak negar malkoz beteta, kalera irten eta korrika hasteko aukera. Berotasuna sentitzeko beta. *Garra. Gar, ger, gir, gor gur. Erritmo erraldoiaz nor ez du martxan jarriko halako deiak? Mundu bat doa korrika euskararen herrietan; karriketari korrika, korrika karriketan.*

Hona aukera, *jalgi hadi euskaraz, laga erdara eta bizi ganoraz. Gurekin etorri, korrika uztarri. Denon amasez ta hire izerdiaz egingo diagu aurrera.* Heldu jezaiok lagunari tinko bidean. Euskal Herrietan barrena mapa osoa marrazten dian lasterketara batu hadi, euskarak beste urte batez ere irabaz dezan; Xiberoako ekhipean iratzarri eta Sartagudan autengogan lehen aldiz lotaratu duan korrikaldira.

Kalaka da giltza. Kalakak zabalduko du euskara mundura. Kalakari izan gaitetzen bada. Euskalakari, alajaina. *Pausoz pauso, gelditu barik, pausoz pauso maitatu, ari; pausoz pauso, euskalakari.*

**Taxio Arrizabalaga**

**Zorion-agurrak**



**Joserra eta Carlos**

Oporrak hasteko modu bikaina zuen urteak ospatzea, Zorionak!



**Beatris**

Zorionak 'Maki!' Non ez dakigu ondo, baino primeran ospatuko dugu seguru.



**Enara**

Muxuak guraso, aitona-amona, zure ahizpa Joana, Lander eta Maitearen partetik.



**Maialen eta Markel**

Zorionak 'bitxitos'. Muxu handi bana familia guztiaren partetik



**Jon eta Ander**

Zorionak bikote! Muxu pila bat etxeko guztiaren partetik.



**Salma**

Zorionak sorgina! Bi urte zirikatzen! Maite zaitugul!



**Iraia**

Zorionak Iraitxo. Muxu potoloa gure etxeko erreginari!



**Antonio eta Angelika**

Zorionak zuen urrezko eztaietan, espero dugu diamantezkoetara iristea. Familiaren partetik.



**Jokin**

Happy birthday, sweet heart! Muxu handi bat familiaren partetik.



**Jon**

Zorionak! Oso ondo pasa eta besarkada handi bat familiaren partetik.



**Unai**

Zorionak maittia! Txokolatzeko 6 muxu erraldoi. Oso ondo pasa!



**Aiora**

Zorionak maitia, zure 9. urtebetetzean. Muxu handi bat denon partetik.



**Daniel**

Zorionak txori txikitxo zure 6. urtebetetzean, Lasarte-ko familiaren partetik!



**Ander**

Zorionak 5 urtebetetzean! Txokolatzeko muxuak ama, aita eta Unax-en partetik.



**Lur**

Zorionak udaberriko lore eder! Oso ondo pasa eta 7 mila muxu. Horren polit segi!



**Aitor**

Zorionak 5. urtebetetzean. Muxu asko aitona-amona, Gorka eta Unairen partetik

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

- 116m<sup>2</sup>-ko pisua salgai, kulturetxearen parean. Berrituta. Etxe osoak kalera ematen du, Tel.: 639 738 413.
- Lokala salgai Lasarte-Orian, Green plazan, 48 m<sup>2</sup>. Etxebizitza egin daiteke legedi barruan. 110.000 euro. Tel.: 605 770 786.
- Mobil home bat salgai Oriten. Tel.: 626 057 485. Jone.
- Pixua errentan hartuko nuke. Lasarte-Oria, Andoain edo Villabonan. Tel.: 667 808 934.
- Jakan apartamendua alokatzetan da Aste Santuan. Tel.: 630 827 016
- Hernaniko alde zaharrean etxe berria salgai, 270.000. Tel.: 943 332320 685 369 952.

**Lan-eskaintzak**

- 4.D.B.H-ko ikasle bati klaseak emateko irakaslea behar da. Tel.: 636 218 677.

• Euskara irakaslea behar da haur bati erreformatu klaseak emateko. Astean bat edo bi orduko saioa izango litzateke eta posible bada, asteazkenean. Tel.: 630 723 515.

**Lan-eskariak**

- Emakume euskalduna eskaintzen da gaixoak edo adineko pertsonak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordu-tegi malguarekin (bai egunez edo gauzez) eta prezio ekonomikoa. Tel.: 687 348 223.
- Gizonezko batek lan egingo luke zamalanetan, lorezaintzan, eraikuntzetako zainzaile e.a. Tel.: 667 808 934.
- Lasarte-Oriako neska gaztea eskaintzen da kurtsosan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Tel.: 677 823 141.
- Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 618 097 676.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • www.txintxarri.info  
txintxarri@txintxarri.info; www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

**Heriotzak**



- Demetria Arteaga Gorriti, apirilaren 14an, 83 urte zituela
- Maria Egaña Urreta, apirilaren 13an, 85 urte zituela
- Florentxi Eugui Jaunsaras, apirilaren 13an, 80 urte zituela
- Jose Antonio Gallego Torres, apirilaren 10an, 40 urte zituela
- Carmen Prieto Mota, apirilaren 8an, 64 urte zituela

**Jaiotzak**



- Abdiel Dyan Montero Pereda, apirilaren 10an
- Garazi Dieguez Campo, apirilaren 10an
- Unax Acuña Rivero, apirilaren 10an
- Ane eta Nora Seijas Gomez, apirilaren 7an
- Garazi Larrañaga Aizpurua, apirilaren 6an

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

- Ostirala, 15**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529
- Larunbata, 16**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Igandea, 17**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Astelehena, 18**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

- Asteartea, 19**  
Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567
- Asteazkena, 20**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Osteguna, 21**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Ostirala, 22**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Larunbata, 23**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chuela, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

**Argitaratzailea:** Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A. **Aleak zenbakiko:** 7.700 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publikizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. **Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**

# Igerilari txikiak ere primeran

Lehenengo larunbatean, Buruntzalde Igeriketa taldeko benjamin eta alebinek ligako 5. jardunaldia izan zuten, Tolosan.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu duenez, "oro har, gure igerilariak bikain ibili ziren ligako azken jardunaldi honetan eta alebinei dagokionez, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan lan ona egiteko moduan daudela uste dugu".

Honela, Borja Apeztegiak azaldu zigunez, bikain aritu ziren lehenengo eta bigarren urteko benjaminak 100 estiloak proban.

Nesketan, gainera, lehen lau sailkatuak Nahia Jie Villamediana, Nora Irazusta, Amaia Izagirre eta Leire Carcedo taldeko kideak izan ziren.

Froga indibidualetaz aparte, 6x25 libre erreleboan parte hartu zuten benjaminek. Bigarren urtekoek "proba bikaina" egin zuten eta lehen urtekoek ere "lan ederra egin zuten".

Alebinei dagokionez, lehen urtekoek 50 metro tximeleta eta 200 estiloak probak izan zituzten eta bigarren urtekoek 100 tximeleta eta 200 estiloak.

"Denak bikain aritu ziren eta Tolosan ospatutako jardunaldian neskek aurreko postuetan amaitu zuten ia beti," jakinarazten du.

Gauzak honela, 50 tximeletan, nesketan, Janire Bera-sarte bigarren izan zen eta Ainara Garcia hirugarren; 200 estiloak proban Ainara Garcia lehenengo sailkatua izan zen eta Janire hirugarren izan zen.

Azkenik, Naiara Lizaso 100 tximeleta eta 200 estilo probetan lehiatu zen eta lehenengo eta bigarren postua lortu zituen, hurrenez hurren.

## Hitzarmena

Bestalde, Buruntzaldea IKT-k eta *Activación Muscular Training*-ek patrozinio hitzarmena sinatu zuten apirilaren 7an.

Hitzarmen honen arabera *Activación Muscular Training*-ek dirulaguntza bat emateaz gain, infantil, junior, promesa eta absolutu mailako igerilari bakoitzari urtean 6 saio eskainiko dizkie doan.

Honetan gain, igerilarieei biomekanikaren inguruan hitzaldiak eman eta tratamendu indibidualetan *Activación Muscular Training*-ek prezio bereziak egingo dizkie.



Tximeleta proban bikain aritu ziren taldeko igerilari gazteak. Arg.:Buruntzaldea IKT

Laguntza hauen truke, Buruntzaldea IKT-k *Activación Muscular Training*-en logoa eramango du taldeko kamiseta eta galtzetan, baita bere [www.buruntzaldeaikt.blogspot.com](http://www.buruntzaldeaikt.blogspot.com) blog-ean ere.

Hitzarmen formalaz gain,

bi alderdiek elkarlanerako adostasuna azaldu dute eta momentu puntualetan egin daitezkeen bestelako jarduerak batzuk egiteko aukera zabalik utzi dute, hala nola, hitzaldiak, ariketa bereziak, txapelketetako tratamenduak... •

## Kirolerako agenda

### ARETO-FUTBOLA

#### Ostirala 15

**HERRIKO TXAPELKETA**  
Finalerako Fasea, kiroldegian  
20:00etan, Naiban - Izkiñá  
21:00etan, Buenetxea - Epel

#### Larunbata 16

17:45ean, Aldaz H.K. - Laskorain Ikastola (Nazional B maila) Kiroldegian.

#### HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxka eta kontsolazioa,  
Michelingo kirol gunean  
10:00etan, Lekuona Mena - Ayete  
11:00etan, Indaux Ilargi  
12:00etan, Illun - Katakars

#### Igandea 17

12:00etan, Zarautz - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Aritzatalde kiroldegia, Zarautzen.

### FUTBOLA

#### Larunbata 16

10:30ean, Ostadar - Real Sociedad (Infantilen Ohorezko maila, txapelketen fasea) Michelinen.

12:30ean, Hernani - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Zubipe, Hernanin.

15:30ean, Ostadar - San Pedroarra (Erregionala gorena) Michelinen.

15:30ean, Martutene - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

16:30ean, Euskalduna - Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Ubitarte, Andoainen.

17:15ean, Texas Lasartearra - Behobia (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

#### Igandea 17

10:30ean, Intxaurren - Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

12:00etan, Elgoibar - Ostadar (Infantil txikiak, kopa) Mintxeta, Elgoibarren.

### PILOTA

#### Larunbata 16

10:00etan, Alde Zaharra - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, II. Kadeteak) Atano III.a pilotalekua, Donostian.

16:00etan, Intza - Urnieta (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, II. Kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

#### Igandea 17

10:00etan, Intza - Etxenike (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, I. Kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

10:00etan, Intza - Aurrera Saiatz (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, I. Kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

10:00etan, Intza - Aurrera Saiatz (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, I. Kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

### PALA

#### Larunbata 16

17:00etan, J. Begiristain eta X. Etxezarreta - I. Lizaso eta J. Alzibar

18:00etan, I. Lizaso eta J. Alzibar - I. Bardaji eta A. Zubizarreta

### SQUASH

#### HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera

#### Ostirala 15

Iker Cañedo - Xabier Linazisoro  
Irati Agirre - Javier Serrano

#### Astelehena 18

Michel Zugasti - Oinatz Iparragirre  
Joaquin Peña - Patxi Delgado

#### Asteartea 19

Iñaki Garcia - Emilio Hernandez  
Veronica Gonzalez - Quinin Calvo

#### Asteazkena 20

Agustin Erkizia - Fernando Montero  
Alberto Udabe - Raul Mateos

### TXIRRINDULARITZA

#### Larunbata 16

15:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XVII. Gipuzkoa Klasi-ka proban parte hartuko dute, Zumaiain.  
16:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Elgoibarko Sarian parte hartuko dute.

#### Igandea 17

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldea Artikutzara egingo du irteera.  
10:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek LI Otxoa Oroimez-nezkoa proba dute, Eibarren

### ATLETISMOA

#### Igandea 17

10:15ean, Landaberri eta Sasoetako ikastetxeetako gazteek alebin eta infan-

til mailako Gipuzkoako txapelketako 2. jardunaldia dute, Tolosan.

### IGERIKETA

#### Larunbata 16

10:00etan, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuek Manolo Garcia trofeoan parte hartuko dute, Tolosan

### GIMNASTIKA

#### Larunbata 16

11:00etan, LOKE eta AKE taldeko gimnasten erakustaldia, kiroldegian.

### DUATLOIA

#### Larunbata 16

15:00etan, Saiatuz taldeko hainbat kidek Euskadiko duatloi luzeko txapelketan den Arrigorriagako duatloia dute.

### BOLA-JOKOA

#### Igandea 17

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Gipuzkoako kopako jardunaldia du, Olaberrian.

**kima**  
masaje-lekua  
Goyo Martin  
Xabier Carbayeda  
Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197  
LASARTE-ORIA

**eskaletza**  
**INQUIETUD**  
Neurriak 36tik... 60ra  
Nagusia 49  
Tel.: 943 370 290



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

OSASUNA

**Ariketa osasuntsua egiteko aukera**

Lasarte-Oriak adineko pertsonen ariketa fisikoak egiteko lehen parkea du dagoeneko. Instalazioa Kontzeju Txiki plazan kokatuta dago eta mugimendurako hamar modulu ditu guztira.

Makinak muskuluen tonua eta artikulazioen mugimendua hobetzeko garatuta daude. Moduluetako batzuk muskulatura indartzeko pentsatuta daude. Bestetik, ariketa makina hauekin sorbalda edo eskumuturren eta gerrialdeko malgutasuna handitu eta aldaka eta bizkarreko tentsioa erlaxatu ditzazkete. •

IGERIKETA

**Helduentzako igeriketa ikastaroak abian**

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak apirilaren 18tik ekainaren 6a bitartean igeriketan trebatzeko aukera luzatu nahi die herriko helduei. Hastapen eta erdi mailako ikastaroa izango da eta astean hiru egunetan jorratuko da, astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 20:30etan hasiz.

Izena emateko azken eguna gaur da. Interesa duenak Kiroldegiko bulegotik pasa edo 943-376182 telefono zenbakira deitu beharko du. Prezioa 58,70 eurotako izango da Lasarte-Oriar erroldatuak daudenentzat eta 105,70 ez erroldatuentzat. •

BIZI OSORAKO KARTZELA ZIGORRAREN AURKA

**LABek bat egiten du manifestazioarekin**

Lasarte-Oria eta Usurbilgo LABek bat egiten dute gaur arratsaldean 19:30ean gure herriko kaleetan zehar egingo den Bizi Osorako Kartzela Zigorren aurka manifestazioarekin.

Honako enpresatako delegatuek ere bat egiten dute manifestazioarekin: Michelin, Ingemar, Sodesho, TSST, Antza, San Jose, Teleonic, Luzuriaga eta Frutas Redis.

Bide batez langile guztiak animatu nahi dituzte presoen eskubideen aldeko ekimen guztietan parte hartzea. •



Arg.: LAB sindikatua

# Lasarte-Oriako 2011. urteko literatura lehiaketa martxan

Lasarte-Oriako 2011. urteko Literatura lehiaketen oinarriak argitaratu ditu Udaleko Kultura Batzordeak. Aurtengoa Literatur Lehiaketaren XXV. edizioa izango da eta haur eta gazteen, hogeita laugarrena.

**Helduen lehiaketa**

Helduen mailan, euskaraz eta gaztelaraz sari bana emango da Ipuin eta Poesia ataletan. Gainera herrian errolaturik daudenen "Lasarte-Oria" sari berezia eskuratzeko aukera izango dute.

Sariak 1.000 eurotakoak dira sail bakoitzean eta herriko lan onenek 300 euroko saria eskuratu dute.

Aurreko urteetan sarituak izan diren pertsonen ezingo dute berriro saria jaso zuten saillean parte hartu.

Lanak, 2011ko maiatzaren 13ko eguerdiko 13:00ak baino lehen eraman beharko dira



lazio Literatura lehiaketan parte hartu eta sarituak izan ziren gazte eta helduak.

Manuel Lekuona kultur etxeko bulegora. Posta ziurtatuz epearen barruan bidalitako lanak ere onartuko dira.

**Gazteentzako lehiaketa**

Bestalde, herriko gazte eta haurren artean literatura sorkuntza bultzatzeko asmoarekin, XXIV. Literatur Lehiaketa antolatuta du Udalak, euskaraz eta gaztelaraz, poesia eta ipuina. Lanak aurkezteko epea berdina da.

Hiru maila egongo dira adi-

naren arabera, 94-95-96an jaiotakoak; 97-98-99an jaiotakoak; 2000 urtean eta ondoren jaiotakoak. Ipuin lehiaketan maila bakoitzean hiru sari emango dira 150, 112 eta 76 eurotakoak. Poesia lehiaketan bai euskaraz eta bai erdaraz, 150 euroko sari bakarria izango da kategori bakoitzean.

Haur eta gazteen sari guztietan erdia dirutan emango da eta beste erdia liburuak erosteko txartel batean. •

## “Estudio del Pintor” eskolaren erakusketa

Aurten ere *Estudio del pintor* margo eskolako ikasleen lanak Manuel Lekuona kulturetxeko erakusketa aretoan ikusteko aukera dago. Urte osoan zehar estudio honetan ibiltzen diren ikasleak sortutako arte lanak ezagutzeko gonbitea luzatu nahi digute. Apirilaren 20ra arte egongo da irekita erakusketa, arratsaldeko 18:00etatik 21:00ak arte. Erakusketan paisaiak, hiriburu ezagunak eta aktoreen erretratuak ikusteko aukera izango dugu. •





**Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria**  
Tel.: 943 37 04 46

# HARATEGIA



# URDAITEGIA



**Nagusia 50, behea Lasarte-Oria**  
Tel.: 943 36 36 11



**Geltoki Kalea 15 behea Lasarte-Oria**  
Tel.: 943 376585







# I. URRUZOLA AROTZTEGIA



Oria etorbidea 4, behea  
(Errekatxo jatetxearen ondoan)  
Tel.: 943 371200 / 610 413131  
Lasarte-Oria

- Era guztietako arotz-lanak
- Armairu barrenduak
- Etxe barruko konponketak
- Parket flotantea

## SANCHO TABERNA

**Kaxuela,  
pintxo eta  
morunoetan  
espezializatua**



**HITZARTUTAKO  
eta  
TALDEENTZAKO  
MENUAK**

**Ogitartekoak  
Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Eguneko menua**



**Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075**

## LUIS CAR autobusak



- Espainiako eta nazioarteko garratxo-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

**Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA**



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko txikienek eman zioten hasiera Korrika Txikiari.



Ederki egin zuten korrika herriko ikastetxeetako gaztetxoek herriko kaleetan barrena.

## Korrika Txikia herriko kaleetan

Zumaburuko elizaren ingurutik eman zioten atzo hasiera Korrika Txikiari Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasle txikienek.

Handik Kale Nagusia eta Beheko kaletik barrena Sasotako eraikinera joan ziren. Andatza plazara egin eta Tajamarreko errotondan Donostia Etorbidetik gora joan zen Korrika Txikia.

Landaberri ikastolakoek aldiz, Garaikoetxea eraikinaren parean parte hartu zuten

lekukoa eta herriko erdigunera zeharkatu ostean, Andatza-ara plazara egin zuten.

### Amaiera festa

Bertan Korrika Txikiari amaiera eman zioten lekukoa eramane zuten partaide guztiak kioskoan batuz.

Ostean, plazan bildutako guztiak batera Korrikako eta erraustegiaren aurkako flash mob-a dantzatu zuten. Eta Amalurrek girotutako erromeriarekin amaitu zen festa. •



**eskaletza**

Etorri gure jaki goxoak probatzera

VINA del MAR

TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

txintxarri eta

**eskaletza**

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607

**Ttakun**

**InmoGes**

Inmobiliaria

**eskaletza**

Kale Nagusia 12-3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376662

**Fernández**

e h u n a k

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607  
LASARTE-ORIA

## Korrika Txikia



Korrika Txikiko lekukoa eraman zuten ikastetxeetako haur eta gaztetxoak Andatza plazako kioskora igo ziren.




Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gaztetxo batzuk ia ibilbide osoa egin zuten.



Herriko ikastetxeetako haurrek Korrikako eta erraustegiaren aurkako flash mobak ederki dantzatu zituzten.



Landaberri ikastolako txikiak lekuko bana izan zuten. Gazteek, berriz, indar guztiak jarri zituzten korrika egin eta era berean abesteko.



EGUNEKO MENUA

DANTZA

BOKATAK

KONTZERTUAK



Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089  
LASARTE-ORIA

# 17. Korrika igandean pasako da

Larunbata 16

**Ekitaldiz beteriko eguna**

11:30EAN HAURENTZAKO OLIMPIADAK Andatza plazan, Ostadar eta Joxean Unsainen eskutik.  
 12:00ETAN, AMALUR trikitixa eta pandero taldeko musikariak kalez kale arituko dira giroten.  
 12:00ETAN, Xumela eta Albokako kideak tabernaz taberna arituko dira abestiekini giroten.  
 13:00ETATIK 14:00ETARA KUKUKA antzerki eta dantza eskolako talde batek kale animazioa egingo du.  
 14:00ETAN BABARRUN JANA Andatza plazan (haurrentzako makarroiak egongo dira).  
 16:00ETATIK ALURRERA HAINBAT EKITALDI Andatza plazan bertan: herriko bertolariak; bakarrizketa...  
 18:00ETAN SAGARDOTEGI PLAZAN erromeriaren hasiera herriko gazteen eskutik. Ordu berean Kukukako dantzako kideek kalejira egingo dute eta Sagardotegi kalean amaitu.  
 22:30EAN BAKARRIZKETAK JALGIN Mikel Bermejo, Mailu Arruti, Ioné Gorrostazu eta Olatz Etxeberriaren eskutik.

Igandea, 17

**Korrika iritsiko da**

07:30AK ALDERA PASAKO DA LASARTE-ORITATIK. Usurbildik etorriko da eta Errekalden utziko dugu.  
 Korrika igaro ostean Sagardotegi plazan txokolatada gozoa dastatzeko aukera egongo da.

- 1 - LAB
  - 2 - OSTADAR
  - 3 - SORGIN JAIK
  - 4 - ELKARTE GASTRONOMIKOAK
  - 5 - TRIPONTZI JANGELA
  - 6 - LASARTE-ORIAKO UDALA
  - 7 - IKASTETXEA
  - 8 - ANTZA-ARGIA
- 9 - PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
  - 10 - KUKUKA
  - 11 - ZABALETA AUZO ELKARTEA
  - 12 - LANDABERRI GURASO ELKARTEA
  - 13 - MUNTTERI AEK
  - 14 - ERKETZ
  - 15 - EZKER ABERTZALEA
  - 16 - TTAKUN
  - 17 - PATINATZAILEAK



## DANA ONA JATETXEA

**EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA**

- JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO
- ETXKO ESPEZIALITATEA: PARRILLAN ERRETAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

restaurante@danaona.com  
 Zubieta (Hipodromoaren ondoan)  
 Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020

**Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN KARRETEEN errebelatua EZKONTZETAKO erreportajeak ESTUDIOKO erreportajeak makina DIGITALAK 30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK Markoak jartzeko tailerra**

Beti euskararen alde!



Mikel Bermejo Bakarrizketa egile eta zalea

# “Ideiak erraz sortzen dira nire buruan”

■ Korrikak antolatutako “kalakari” bakarrizketa lehiaketan parte hartu du Mikel Bermejok  
 ■ Pozik da Aguraingo kanporaketa pasa ez zuen arren ■ Andatza eta Jalgin egingo du larunbatean



Mikel Bermejo lasarteoriatarrek bi bakarrizketa saioa eskainiko ditu bihar, larunbata. Bata Korrikako bazkaria eta bestea Jalgin.

Korrika Badator. 17. Korrika hemen dugu. Maitatu, ikasi, ari... euskalari lelopean Trebiñutik abiatu zen apirilaren 7an eta igandean, hilaren 17an iritsiko da Donostiara. Lasarte-Oriatik igande goizean pasatuko da, egunsentian, horregatik aurreko egunean antolatu dira ekintza garrantzitsuenak eta hain juxtu, larunbatean, Mikel Bermejo herritarraren bakarrizketa bi aldiz ikusteko aukera izango da, bai, Andatza, bazkariaren ondoren antolatu den ekitaldian eta baita Jalgi kafe antzokian gau partean ere. Korrikak antolatutako kalakari lehiaketan parte hartu zuten zenbait bakarrizketa entzuteko aukera egongo da beraz herrian.

**M**ikel Bermejok 19 urte ditu eta bakarrizketen alorrean ibilbide handia du oraindik egiteko. Orain dela gutxi hasi da mundu honetan, Korrikak antolatutako kalakari lehiaketan parte hartu zuen Agurainen martxoaren 27an. Ez zuen kanporaketa pasatzerik lortu baina kontent da han jasotako berotasunagatik.

Zer dela eta erabaki zenuen Kalakari lehiaketan parte hartzea?

AEK-ko zuzendariak bakarrizketan aritzeko lehiaketa bat zegoela esan zidan, bere

semeak ondo ibiltzen nintzela esan eta gero proposatu zidan parte hartzea. Mundu hori asko gustatzen zait eta apuntatzea erabaki nuen. Hiru lekutan egin zen kanporaketa Durangon, Agurainen eta Donostian (Dokan) eta ni Agurainera joan nintzen. Hasieran Donostian parte hartu behar nuen baino jende gehiegi zegoen bertan eta Agurainera bidali ninduten.

Zenbat parte hartzaile bildu zineten bertan?

Orotara lau. Beste bi mutil eta neska bat. Gazteena ni nintzen, gainerakoek 40 urte ingu-



**Naroa Patxi Larranaga**  
Lasarte-Oria  
Kale Nagusia 39  
Tel.: 943 372668  
Faxa: 943 370737



**NAROA PATXI LARRANAGA ANA IPARRAGUIRRE**



## M. Berasategi

### Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

**INFUSIOAK**

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

**TEINA GABEAK**

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

**KAFE ARABIKOIA**

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA





Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA

*"Betidanik txistezalea eta bromazalea izan naiz, horregatik koadrilakoak animatu ninduten afari baterako bakarrizketa bat prestatzera; nik, egin, eta gustatu egin zitzaiz"*

ru izango zituzten. Neskak irabazi zuen, baina ni oso gustura sentitu nintzen. Lehiaketa amaitu zenean epai-mahaikide bat etorri zitzaidan eta horrela jarraitzeko esan zidan. Oso ondo aritu nintzela. Ezagutzen ez nuen jendea ere hurbildu eta aurrera jarraitzeko esan zidaten. Nire burua oholatza gainean ondo ikustea zen nire helburua, ez irabaztea.

**Bi bakarrizketa prestatu behar ziren, zer prestatu zenuen zuk?**

Lehenengoaren gaia librea zen eta bestean kalakari hitza gidari hartuta egin behar zen bakarrizketa.

Gai librean Korrikaren parodia egingo nuela erabaki nuen. Bakarrizketaren hasieran ni korrikalariz jantzita, motxila batekin agertu nintzen testigua eskutan Korrika itxoiten, baina oraindik hasi gabe zegoen.

Ondoren kirol ezberdinei buruzko sekretuetan zentratu nintzen; tenisa, futbola, saskibaloia, kurling-a, txirringularitza, Formula-1a...

Bakarrizketak 8 minututako izan behar zuen. Bestea,

kalakari hitzaren ingurukoak, bitan banatu nuen nik. Alde batetik Cacereskoa bainintz bezala aurkeztu ondoren, euskarari buruz aritu nintzen, euskara nola ikusten nuen azaldu nuen, eta bestetik, kalakari hitza aztertu nuen, etb-Teko saioa eta Xabier Euzkitze imitatuz.

**Eta nolatan landu duzu kirol mundua?**

Ez dakit. Egunero zoezer apuntatzen dut, burura etortzen zaizkidan ideiak. Kiroletako gauza asko nituen, kirolaria naiz eta horregatik erabaki nuen. Erabaki azkarra izan zen. Errauskailuaren kontrako bakarrizketa bat prestatuta neukan, baina Agurainen hori ez zen ulertuko, horregatik ideia alboratu eta kirolarekin geratu nintzen.

**Bakarrizketak ez dira bat-batekoak, zenbat denbora pasa zenuen prestatzen?**

Aste bete baino gutxiago, lauzpabost egun. Hasiera euforikoa izan nuen, gustura nengoen. Ideia asko ateratu nituen lehenengo egunean eta

*"Idei ugari izaten ditut egunean zehar, beraz koaderno batean apuntatu eta hortik gero sortzen ditut bakarrizketak. Askok ditut prestatuak, bai euskaraz eta bai erdaraz"*

gero moldatzen aritu nintzen. Berez, aipatu dudana bezala Donostian hartu behar nuen parte eta lehiaketa igandean bazen, ostiralean esan zidaten Agurain hartuko nuela parte. Ostiralean amaitu nuen dena, goizeko 5ak arte egon nintzen atrezorako behar nuen guztiak prestatzen.

**Nola eratzten da bakarrizketa bat?**

Inspirazioa etortzen zaizunean ideiak apuntatu behar dira, nik egia esan erraztasuna daukat horretarako. Batzuetan konturatzera zera egun batean idazten duzun ideia horrek, hurrengo egunean ez daukala zentzurik, baina hortik beste zoezer atera daiteke.

**Lehenengo aldiz aurkeztu al zara lehiaketa batean?**

Bai. Orain arte koadrilako afarrietan eta ibili naiz, pasaden Multimuskalean ere bakarrizketa bat prestatu nuen eta herritarren aurrean aurkeztu. Gustura egin nuen eta gustura atera nintzen, show ederra muntatu genuen, etxean bezala sentitu nintzen.

Hala ere, Agurainekoa okerragoa izan zen, pinta okerragoak eraman nituen.

**Bakarrizketa buruz ikusia al zeneraman?**

Ez. Eskema bat erabiltzen dut, inprobisazioa gehienbat. Etxean entseatu egiten dut, baita ahots ezberdinak. Buruan ditut ideia guztiak eta beraz erraz iriteten dira, nik sortu dut, beraz errazagoa da.

**Bakarrizketa hau herrian entzuteko aukera ere izango dugu, ezta?**

Bai apirilaren 16an bi saio egingo ditut. Egun luzea izango da niretzat. Korrikako bazkariaren ostean bertsolariak, trikitiak... egongo dira, eta nik ere parte hartuko dut. Egun berdinean baina gaueko 22:30etan Jalgin izango dut emanaldia beste hiru neskekin.

**Eta nondik datorrizu horretarako zaletasuna?**

Betidanik izan naiz txistezalea, lagunaren artean, koadrilaren afarrietan, brometan ibiltzea dut gogoko. Duela sei hilabete koadrila afari baterako bakarrizketa

*Korrikaren XVII.edizioaren barnean antolatutako kalakari lehiaketa izan dut lehenengo txapelketa, baina hemendik aurrera enteratzen naizenetara joatke asmoa dut*

bat prestatzeko eskatu zidaten. Dana Ona jatetxean egin nuen eta inguruko mahaietako jendea ere gustukoa izan zuen. Hortik aurrera egunero ideien bat idazten dut. Bai euskaraz bai erdaraz bakarrizketa ugari ditut prestatuak.

**Mundu hau beraz gustukoa duzu?**

Bai, asko gainera. Beste lehiaketaren baten berri izaten dudanean zalantzarik gabe joango naiz. Gustura egiten ditut, gustura ateratzen naiz.

**Lotsarik?**

Ez. Oholatza igo behar zaren momentu horretan urduritasuna sumatzen duzu, baina gero igo eta publiko aurrean dena erraz doa, eroso sentitzen naiz. •



**ASEGURUAK**  
**Ges**  
Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoa

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899 Faxe 943 368575 • cristina\_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA



**DAKARA** JATETXEA

Ez geratu ostegunetako gure nazioarteko afariak probatu gabe !!

Eta orain... eskatu eta eramango dizugu !

Eguneko menua asteartetik ostiralera

Espezialitatea hostopiletan Errazioak Entsaladak Ojitarretakoak

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859

# 17. Korrika Euskal Herritik kanpo

Estatuko eta munduko hainbat hiri eta herrietan ere, euskalakariek Korrika ospatu dute

Euskaldun ugari dira lana edo edozein arrazoi dela eta Estatuan edo nazioartean bizi direnak. Euskal etxean bitartez, gure herriko ohiturak eta jaiak ospatzen ditu euskal diasporak. Gauzak honela, ugari dira egin hauetan 17. Korrika ospatu duten euskal etxeak. Horietako bat Shangaikoa dugu eta bertan dauden lasarteoriarrek hango Korrikaren berri eman digute.

**T**rebiñon hasi zen 17. Korrika, apirilaren 7an, eta Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatzen ari den olatu erraldoia dugu. Baina gure lurraldetik kanpo dauden euskaldunek ere ospatu dute euskararen aldeko lasterketa hau, baita Euskal Herritik oso urruti ere.

## Estatuan eta atzerrian

Era honetara, euskalakariek estatuko hainbat puntuetan ekintzak burutu dituzte aste hauetan euskararen aldeko apustua egiten dutela jakinarazteko, hala nola, Bartzelonan Lipdub-a grabatu zuten edo Madrilan erromeria aparta sortu zen Korrika egin ostean.

Baina esan bezala, Estatu-ko mugetatik kanpo ere, euskal diaspora edo euskaldunak dauden lekuetan ibili da 17. Korrika, Europan esaterako

Berlinen eta Londresen egin dute edota Estatu Batuetan Boise eta New Yorken, besteak beste.

## Ekialde Urrunean

Eta horren adibide, ekialde urrenean dugu, Shangaiko Euskal Etxeko lagunen eskutik.

Txinako hiri honetan hainbat lasarteoriar daude eta horietako batek, Igor Castrok 17. Korrika ospatzeko egin dituzten ekintzen berri eman digu.

## Kros herrikoia

Gauzak honela, Shangaiko Euskal Etxera apirilaren 10ean, igandean, iritsi zen Korrika.

Goizean goiz, hasi ziren ekintzak. Izan ere, Euskal Etxeko kide batzuk Jinqiao kros herrikoian parte hartu zuten. Eta euskal etxeko blog-ean diotenez, zortzi kilome-



Korrikaren parte hartu zuten Euskal Etxeko kideek Jinqiao Temple aurrean aterata zuten argazkia. Arg.: Shangaiko Euskal Etxea

troko lasterketa honetan eduki ibili ziren euskaldunak.

## Korrika

Eguerdian, berriz, Korrikaren txanda izan zen.

Ez ziren euskal etxeko kideek nahi adina metro izan, baina haien eskutik, testigua Shangaiko kaleetatik barrena ibili zen.

Azken ik, hainbeste lasterketaren ostean, bazkaria egin zen euskal etxean. •



Olaia Irulegi eta Igor Castro lasarteoriarrek Shangain parte hartu zuten Korrikaren.

## ETXEZARRETA

## HARATEGIA







Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379  
**LASARTE-ORIA**



## TABERNA

# Buenetxea

## KAFETEGIA

Astehenetik ostiralera goizeko 07:30ean irekitzen dugu  
Larunbat eta jai egunetan 09:00etan

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508  
LASARTE-ORIA**

Infusio naturalak

Txokolatea txurroekin

KAFE BEREZIAK  
IRLANDESA  
ESKOZESA  
KAPUTXINOA  
BONBOIA



Korrika ... eta gero etorri gurekin gosaltzera !!





RPS 124/10

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte



Deitu gure zerbitzua ezagutzeko  
**943 366 377**

Ola Kalea, 10  
Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22  
Elgoibar 20870



[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

MEKANIKAKO TAILERRA

# SAN JOSE-OLAIZ



- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.



LOMBARDINI

**IVECO**

ZERBITZU OFIZIALA



DIMETAL S.A.

Or dute gia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxe: 943 366508

## JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxe: 943 696 852 • Mobila: 620 800186

Egunero

**Erakusketa**

ESTUDIO DEL PINTOR AKADEMIAKO IKASLEEN erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara

Ostirala, 15

**Bakarriketa**

Gazte kontzertuen barruan, RUBEN ARROSPIDEK BAKARRIZKETAK eskainiko ditu. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan, GAZTELANIAZ



**Antzerkia**

Telebistako VAYA SEMANITA programaren moldaketa antzerkian ikusteko aukera. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean, GAZTELANIAZ



*Argazki erakusketa Jalgin*

BI LEIHO argazki erakusketa ikusgai. Lanak *Mikel Olaiz* eta *Naike Zumeta* lasarteoriatarrenak dira. Erakusketan, eginiko bidaietan eta inguruko argazki berezi eta exotikoak ikusi daitezke.

GAURTIK AURRERA  
EGUN OSOAN ZEHAR  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

**Kontzertua**

THE BILLIE JEANS taldearen funk, soul, reggae emanaldia. Abend kafe-antzokian, 23:30etik aurrera.



Osteguna, 28

**Zinea**

EL GRAN VAZQUEZ filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, GAZTELANIAZ



**Oharrak**

**Udalekueetan begirale**

Ttakunek Udalen laguntza antolatzen dituen Udako Txokoak egitasmoan edo Kanpaldi itxietan begirale izateko aukera dute nahi duten gazteek. Udalekuak uztailan eta abuztuan izango dira. Interesa dutenek zenbait bide dituzte izena emateko: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke.

**Lourdesera bidai**

Maria Auxiliadora elkarteak, ohitura denez, Lourdesera txangoa antolatu du. Bidaiari maiztaren 8an izango da. Informazio gehiagorako deitu 943 363 675 edo 943 360 042 telefono zenbakietara.

**Odol ateratzea**

Hilabetero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan apirilaren 26an asteartea arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Marrakiz eta pintura eskolak**

Lasarte-Oriako Auzo Elkar-  
teak jakin arazten du, Aste Santuan apirilaren 22 eta 23an ez dela marrakiz eta pinturako klaserik egongo Manuel Lekuona kultur etxea itxita dagoelako.

**Oharrak jartzeko:**  
Tel.: 943 366858  
txintzarri@ttakun.com  
txintzarri@txintzarri.info  
www.txintzarri.info

**Liburutegiko ordutegia**



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Esazu irratiko programazioa**



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

**Eskutitzak**

**Lasarte-Oriako kultura ondarea eta beronen kudeaketa (I)**

Lasarte-Oriako herriak eta bertako herri eragileek kultura sorkuntza arloan duten maila eta gaitasuna agerikoak dira. Denak aipatzeak luze joko liguke, baina urtean zehar gure herrian ospatu ohi den kultura ekinbide andanak argi eta garbi erakusten du gaitasun hori, dela musika munduan, dantza eta sorkuntza eszeniko mailan, kultura herriko eta folklore arloan... ume, gazte nahiz helduak eskuz-esku aritu ohi dira lanean urte osoan zehar herriari dagokion kalitatezko kultura eskeintza osatu, moderno eta orokorra pentsatu eta gauzatzeko bidean, gehienetan modu herriko eta autogestionatuan.

Gaitasun hau izpide hartuta, gutun honen mamiari heldu nahiko genioke. Izan ere, harriritu dihardugu azken urte hauetan herriak bizi duen kultura olatuaren aurrean Udaleko kudeaketaz arduratzen den alderdiak honen aurrean urtetan egin duen ezikusiarren paperarekin. Orohar eskeintza apal eta murrizta, hori bai, lan-tzean behin izen ponpoxo eta ezagunez gatz-pipertua. Eskeintza garesti eta antzua gehienetan, interes zehatz bazuken norabidean bideratua. Orokorrean Kultur-etxe delakoan enlatatuta aurkeztu ohi diren kultura eskeintzak, normalean diruz ordaindu beharrekoak eta herriko behar zein nahiei erreparatu gabe plazaratu ohi diren jarduerak.

Azken 2 urte hauetan

ordea, Udalaren aldetik halako aldaketa nahi bat nabaritu dugu hainbat jardun herrikoiri aurre egiterako orduan, nolabait herriko elkarte eta kultura eragileekin elkarlana bultzatu eta ekinbideak elkarlanean planteatzeko joera. Hainbat adibide aurki ditza-kegu, halanola Ihauterietako asteburuaren antolaketa, edota herriko festetan antolatu ohi duten musika taldeen maketa lehiaketa. Itxuraz, herriko eragileei eskua eman eta denen artean kultura eskeintza txukun bat plazaratzeko nahia... itxuraz diogu, praktikan guzti honen gainean dugun iritzia guztiz kontrakoa delarik; izan ere, praktikan, herrian azken urte hauetan kultura eragileek izan duten gorakada eta batez ere kalitatezko jardun eskeintzen aurrean, udale-

teak herri eragile hauengana hurbildu, beste aukerarik ez du izan, bi arrazoi nagusirengatik;

Batetik, eragileek plazaratutako eskeintza andanaren aurrean kalitatezko alternati-  
ba ofizialik aurkezteko gaitasun ezaren aurrean, nolabaiteko hurbilketa bat ezinbestekoa izan da beraien aukeraren antzutasuna ager-  
riegera ez zedin. Eta bada hau arrazoitzeko datu argi eta garbi bat: Udaleko kultura arloak urtero ofizialki antolatu-  
tako jardueren zenbateko ekonomikoa eta honen aurrean herriko kultura eragi-  
le hainbatek behin eta berriz agertzen duten laguntza eko-  
nomiko falta. Udalaren jokaldi-  
dia oso sinplea da; herriko kultura eragileei orain arte egiten zutena udaletxearen eskutik egiteko aukera ema-

ten zaie, baina udalak bere kultura ereduarekin jarraitzen du, alegia guztion aberastan kulturalerako beharko lukeen dirutza nahi duten moduan xahutuz (esanguratsua aurtengo herriko jaietan OBK taldeari ordu eta erdiko emanaldi batengatik ordain-  
duriko 30.000 euroak, adibi-  
dez), eta kultur eragileek urte osoko lanaren ondorioz pla-  
zaratutako eskeintza beraien eskeintzen parte bilakatu-  
z. Baina adibidez, herriko era-  
gile batek Kultur-etxe-  
aretoa erabiltzeko premia badu zergatik eskatzen zaizkio 900 euro beronen erabilera-  
rako?...

**Lasarte-Oriako Ezker Abertzalea**

JARRAIPENA ASTELEHENEKO  
TXINTXARRIN

**75**  
**URTEURRENA**  
**1935-2010**



**ERAKUSKETA ETA DENDA**  
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 363147  
linterneriaillarreta@yahoo.es



**ILLARRETA**  
**ITURGIINTZA**



**TAILERRA ETA BULEGOA:**  
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752  
USURBIL • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emaila eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



**4 euskaldunetik 1ek kolesterola altu du**

**Kardiobusa Donostiara dator**

Bisita gaitzazu apirilaren 14an, 15ean eta 16an Garberako Merkataritza Gunean, Garbera Zeharbidea 1 helbidean.



Zatuz eta hartu parte **Miguel Indurainek zuzendutako spinning saioetan**, apirilaren 16an, larunbatean, goizeko 11:00etatik 13:30etara, Kardiobusaren alboan.



5 €-ren truke eramazu Miguel Indurainen maillota eta Bihotzaren Espainiako Fundazioak bihotzeko gaixotasunak ikertzen jarrai dezan lagunduko duzu.



**GUZTIOK BATERA BIHOTZAREN ALDE**



Danacol-ek landare-eraztenak ditu eta kalitateko muntzen du. Kolesterola murriztu behar da. Ez zake geroztatik hartzen duzun olio edozein edozein eremuarekin 5 unteko aplikazioa. Gainerako landare-eraztenak 3 gogoratu. Jarraitu truke eta berrizteko ofizioa behar duzue. Berrizteko ofizioa, berrizteko ofizioa.

**IZARRA**  
**BITXITEGIA**

**eskalaya** Korrikaren alde!

[www.izarrabitxitegia.com](http://www.izarrabitxitegia.com)

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY<sup>®</sup> A.I.E.

